

## **Bizkai'ko euskeraren eta, batez be, bere adizpiakeraren aldakuntzak**

Gai au nik ez dot autu: onetzaz zerbait idatzi nengiala Euskaltzain-buruak eskatu eustan lengo ileko batzara baño egun gitxi batzuk lenago. Egun aetan asti gitxi neukan eta lan au oraingo batzar onetarako itxi neban. Orain be, zoritxarez, gauza andirik ezin esan daiket. Gai au bere zabalgo osoan erabili ta azaldu nai leukenak, Bizkai-euskalkia antziña zelakoa zan eta gaur egunean zelakoa dan, eri batetik bestera dituan gora-bera guztiakin, osoro ta zeatz ezagutu bea izango leuke; baño mende bi ta erdi, geyenez be, iru meudez atzeruntz jo ezkeru, euskalki onetan idatziriko libururik ez dazaugu ta antziñago zelakoa zan, susmau bai bea ba-da, baño ziu' eta zeatz jakin ezelan be ezin geinke.

Euskaltzain-buruak Kapanaga zanaren Kristau-ikasbidea bialdu eustan. Au egiñaz Kapanaga'ren egunetatik aona Bizkai-euskalkiak artu, egari ta bere-tu dituan aldaketak neure lan onen gaitzat emoten eustazala dirudi. Au erezago da, ziñez; baño lan au sustraiz osoro ta zeatz egiteko be, lenengo ta bein, Kapanaga ta beste euki doguzan idazle oro arduraz irakui bea izango neunkez, eta gero, gaur egunean Bizkai'ko euskereak eri batzuetatik beste batzuetara daukazan aldeak zearo ezagutu be bai.

Kapanaga semez nongoa zan ez dakit. Mañari'ko abade (edo abade lagun) izan zala ta Tabira'ko urian izkelizti edo gramatikea irakasten iñarduala Kristau-ikasbide onen lenengo ingorian diño. Ikasbide au

erderaz eta euskeraz dago eta 1656 garén urtean irarí zan Bilbo'n. Gero 1893 garén urtean Dodgson jaunak berirarí eban Portugal'go Vizeu'n.

Mañari aldera joan-etoñi bat egin eta ango euske-rea azteñtzeko astirik be ez dot izan: augaitik dakañ-dan lan.au, nai ta ez, marketz eta zatikiña izan beař. Gorago aitatu dodan gai ori iraduz eta beingo baten azteñtu ta azaltzeko zabalegia da-ta, muga estuagoe-tara dakañket onelan: *Kapanaga'ren euskereak eta gaur Bizkai'ko eñirik geyenetan darabilgunak dau-kezan aldeak.*

Gramatika - irakasle izan zan Kapanaga jauna; baña dirudianez euskalitzia, Lazio'ko eřderearen gra-matika baizen ondo ez ekian. Kristau-ikasbide one-tan itzen alkañtze edo joskera okeña sañiegi agiri da. Esaterako:

...ofrecidu baeroen primiciac euren laungoico fal-soai (ded).

...erregutu daguiçula nigaitic laungoicoari (20).

Cerren emaiten daben gloria bere graciarean urtai-ten eztabenari (29) zor dogun penac (37) çordunai parkeetan eztabenac (49).

Esango dau beste Pater noster bat eta Ave Maria-bat Espiritu Santuari (123), eztau burua iñori era-cucico (139) f. a.

Joskerea-uts txikiagoak zenbat nai dakañz; baña aitatu dodazan oñein idekoak be, lañegi. Uts oneik eñiari entzundakoak direanik ez dirudit, berak bere kabuz egindakoak baño.

Saři askotan eñiaren oguzkerea be-zelan idatzi ez ekialako-edo-zeatz ez dauskula aurkezten esango neunke. Kristau-ikasbide onen sañeran, *etse* edo *etxe'* ren<sup>o</sup> ordez, *esean* eta *ecsagunsaac* diño, eta gero ostera, 106 garén ingoskian: «bere *echean* artuten

dituçala». Deusat (ded) deusana (ded) deusut (29) deusagu (40) ta onelakoak aurrez darabiltz. Egoci egotzi'ren ordezt (ded), iasi iatsi'ren ordezt (32), eranci (40) erantsi'ren ordezt, eragoci (95) eragotzi'ren ordezt, ereci (152) eratsi'ren ordezt, ecin (128) etzin edo etzan' en ordezt eta beste onelako batzuk be bai-darabiltz.

Bestelan, Durango aldean eriak egiten eban euskerea darabilela dirudi, eta gauza batzuetan beintzat, euskalizi-irakasle izan ba'litz baño be siñisgarriago dala batek baño geyagok uste izango dau. Bere euskera ta gaurkoaren artean dagozan aldeak ikusi daiguzan.

Lenengo adizpiakera edo aditz irabiatuan.

Bigarren, aditz irabiagean.

Azkenez, beste itz batzuetan.

### Aditz-urgazle igarokora

1. Adizpiakera oneik: *dituz*, *dituçan* safi darabilz; baño bein orain ordezt *diçan* idazten dau. «Noc dauco charidade andiena? Mandamentuac obato gordetan-diçanac» (79). <Deuscu> aurrez darabil; baño biritan lenengo *u* ori barik: descuenac (70) descuen (137). Gaur egunean be euskaldun batzuk iñoz baño sariago orelantxe oguzi daroez.

2. Norbaitek zerbait norbaitzuei egin dautsela adierazteko *deutsen* ordezt «deuste eta deustee» darabiltz. Onelan; «Esaçu, egingo deustegu oraziño angueruay»? (39). Eta santuen Riliquiai çe reverenzia çor deustegu? (42) çelan gueuc parçetan deustegun gueure çordunai (4) (37) Çe oraziño esaten deustezu santuay? (42) deieguin deusteçu (68) esaten deusteçu (69). Emaiten deuste graçia ordenaduai. Emaiten

deuste graçia ezconduai (67). Noraco bidea emaiten deustee (78) emaiten deustalaco vicizea beste virtute guztiari (78) obedezietan deustenac eta respetoa eduguiten deustenac (gurasoai) (48). Geyenez aditz-era auxe darabil; baña batzuetan gaur erabili oi doguna be bai. Esaterako: Guraso naturalac cer zor deusee humeai? (48).

3. *Aldi igaroan* be orëin ideko aditz-erea bein gitxienez darabil: «Christoc parcatu *eusten* cruxifiquetan ebeenai (151). Eutsazan'en ordez eusan eta «ginduzan»'en ordez guenduzan be idoro dodaz:... araco seme prodigoa aiteac emon eusan ondasunac galdu çituana (118) ...çeinetan erredimidu içan guenduzan (22); baña oneik irar'utsak be izan daitezke.

*Agintz-eran* begi'ren ordez «begai» (103) diño bein: baña beste edonoz «<begui>» dakaren ezker, ori irarleen utsa dala agiri da. Alan bein: eçaun eguiçu (155): beste bein gipuzkeraz bezela: arreçazu (153).

4. Menpe-eran, batzuetan «gi» sustrai edo guna osorik darabil: beste batzuetan, ez; batzuetan «da», beste batzuetan «de»: artzale bako aditz-eratan, geyenaz «da» ipinten dau burizkitzat; artzaledunetan «de»; baña ori beti-beti eguiten dauan ala ez ezin esan daiket.

...egun ygaro daguidaçan, esan daguidaçan gauça guztiac (121) ur bedeineatua artu daguianean (130). Mesa... ençun daguiçun (137) mercedu daiguçan (8) eztaguigula iuramenturic (8).

Ea icussi daigun çelan (23) Ezan daigun (80) etc.

Jaungoicoari erregüetan deusala, graçia emon deguiola (90).

...ocassioña emaiten dabenac bestec deguion (51).

...gero emon deigula bere erreña (36).. yfini deguideen penitencia (119).

5. Aldi-igaroan, irugaŕen notiñari dagokiozan aditz-eratan, burizkitzat «l» darabil. Esaterako: eta errematadu eraguin eban iñor etorri eta gueiago emon *leguian* baño lènago (114)... seme prodigoa... viortuñana ostera aiteagana bere esean arñtu leguian cria-duçat (118).

Animo arreçaçu, alboco çauriari icusiagaz, *ceinda* irigui ičan çan emeti urtein *leguian* çure iustificaziñoac (153).

«L» ori barik, beste aldi bat, antziñako aldia, adierazteko darabil: «erioçaco orduan dagoanac beguiratu daguiala celan Christoc eriocea artu eguian (sufrió) (150).» Lenengo notiñaz be gitxienez bein, auxe aldi osoro igaro au adierazo nai dau: Ni beccatariau confeseetan nachaco... eta çuri ayta espiritalorri, cerren bay *neguian* pecatu.» (20).

Gaur aditz era orëik «l» barik erabili oi doguz eta bigaŕen ikurpen onegaz, bein bez.

Orain erabilten dogun «geunskiona'ren ordez, Kapanaga'k bein «guendusteena» diño. = Ze reverencia eta devoçiño eduguico deustegu elexaco Imaginay? ⇒ Santuai eurai, ceinçuen imaginaac direan, emongo guendusteena (41).

6. Àla ta eziña adierazo nai dauanean, geyenez «âl eta ezin» aditzari aurëtik irasten dautsoz: baña iru edo lau bidaŕ ez. Leiçaraga'ren Testamentu Befa'an be auxe berau saritxutan ikusi daikegu.

Aldaien (29) aldaiala, aldaguiala (109) aldaguian (118) albadagui (135). Alneio (ded) al leian (33) ecin leiana (31) alleguiala (106) al guñayan (24) ezin giñay (25) alleien, ecin leien (ded) alleuquean (31) albaleie (69) alleiçala (98) alleigüe (60). «Al» barik: esan çebeique burlaco barbaric, besterenbat mindu edo aserratu *daiana* (125) cerren confesadu daiez pecatu,

pena gueiago emaiten deusteenac (89) au alan içanic, erraz esan daiçu, bada, Jauna, çure escuoc eguin baninduen (154). Zalantzadun itauna egiteko, Axular' ek lez Kapanaga'k be, aditzari «<z>»bat gañeratzen daifso... confiança galdu dabenz,... sinistu dabeenz edo amesen baçuetan (92 eta abar) deusenz (95) deusteenz (97) dituçenz (98) ebeenz (103) dauqueenz, eztauqueenz (113) euqueenz (93) eta onelan beste askotan be bai. Gaur Bizkayan onelako aditz-erarik efiak, nik dakidala, ez darabil.

### Aditz-urgazle igaro eziña

1. Norbaitzuei zerbait bai-dagokiela adierazteko, gaur-egunean erabili oi dogun «yake»'en ordez «iate, iatee» idatzi eban Kapanaga'k. Esaterako: cerren ay (aei) deiengoiatee iaungoicoaren semeac (19, 50, 84) Zazpi pecatuai cegaiti dei eguiten iate beste guztien buruac? (73, 77).

Ze poderegaz eguiten da hau?—Sacerdoteai emon iatenagaz 65.

Sacramentalac esaten iateçanac (67) eta agundua eguin eçarren etorriaten dañuric (98), etc. Naz'en ordez nax (130) naxala (23) safitxu agiri da.

2. Aldi igaroan, «zan» en ordez cidin darabil batzuetan. Leizaraga'k be «cedin»ugari darabil. Kapanagak ain oparo, ez; baña Siniskitz edo Kredian aditz-era au idatzi eban ezkeru, Bizkayan be efiak aurrez erabilten ebala dirudi, «eta iaio cidin Maria Virguineaganic... jachiçidin Infernuefara... erresucitadu çidin jlaen arterean» (6). Asikerako eskin-itzetan *cidin* ori, beste ikuçpen bataz darabil. Ofrecidu bae-roen primiciac... auren igarocidin tropeçabaga euren Doctrinea (ded).

3. Agintz-eran, «bedi»'ren ordez «bidi» idatzi, eban beti: «eguin bidi, santificadu bidi» (4, 36, 91, 115, 128).

Menpe-eran «dadi»'ren ordez «didi» agiri da, batzuetan osorik, beste batzuetan laburtuta. Esaterako; apartadu vadidi ocassiñoetarean (50): egon didila (36): galdu didin (153): artudin moduan (59): ulertudin moduan (146): ildin artean (123): santificadu dila (4): izan dila (36): ian ezfila (58): ezin dinean (70): iraçarri dinean; ianci dinean (120). 148 gařen ingoskian «ioan deiteçala» diño; uręngoan, ostera, «egonditeçan».

4. «Ala ta eziña» adierazteko urgazle onegaz be, aditz auretik «al eta ezin» darabiltz geyenez. Esaterako: ...ceyn, eta engañadu ezin leidin eta ez gu engañadu (25) eta ostera il ezin leitean moduan (33), ezin leite (54). Eta albaleite (salvadu) fedeagaz bacarric? (26). Ze remedio içan alleite (podrá) passiño oneen contra? (71)... celan iaio alçaatean 30 (pudo). Oraitik bein edo bein «al» ori barik darabil. «Ain modutan cein fede au bagaric iñor ez iustu yçan ez salvadu leitean (26).

5. Ezpaidun itaunetan aditz oni be, besteari lez, «z» bat gañeratzen dautso: Ea egon denz... garbaitu iaqueenz... egon ceenz (103). Bein «denz»'en ordez «daen» diño: Ea deseadu daben lagunari onrrea quendu... Ibilidaen traça esque quenduteco (110).

Orain, eta dirudianez aspalditxuan, «eskatu» aditza urgazle igarakořaz erabili oi dogu: Kapanaga'k urgazle igaroeziñaz darabil beti. «Escatu gaquiozan (35): escatu gaiteçan (35): zer escaetan gara (36): zeen esque zara (36, sæpius): zegati esqueetan ez çaçacoz (37): esqueetan iacala (122, 129): escatu daquionean (123) escatu gaquioçala... Jaungoicoari (143): esquetan da sacerdoŕea Christo Jaunari (147): Jaun-

goicoari misericordien escatuco iaco (cristiñaua) (151). Añibaño'k be bere Esku-Liburuan eskatu'gaz urgazle au darabil ainbat bidaí. Aldi baten eñiak oñelan esaten ete-eban?

*Beste aditz batzuk.* Alde andirik ez dot idoro. «Daroala edo daroyala»ren ordez «daroeala» (109): doan edo doyan'en ordez doean (87). (Esakun zâretan be onanixe dago: Ardi bat doean lekutik, oro); yatoí-kezan'en ordez, iatordeçan (128) Batzuetan, «derecho (21) derechanac (39): beste batzuetan, dericheen (89). Gaur egunean be bietara entzun oi dogu. Gaur entzuten ez dana, au beste au da: «Arguiçagui iraxeguiac... eracusten dabee gura dabela aen Magestadeac *ga-goçan* datorreneco ardura andiagaz... (141). «Ba-dazauzu»ren ordez, ba-çaucu (153) ba-çauçu (CLXIX) diño bein. Iraí-utsa izañ daiteke; baña beaí ba-da, bakizu, bakazu eta esaten doguzan lez, ba-*dazauzu*'ren ordez, eñiak *ba-zauzu* be esaten eban.

### Aditz-irabiagea

Erderatik aíturiko aditzik geyen-geyenak «du»'gaz amaitzen ditu.

Esaterako: consoladu (14) alcançadu (19) confes-sadu, professadu (21) obligadu (23) engañadu, ordenadu (34) sustentadu (48) eta abaí. Orain banaka batzuk oñelantxe esaten dabez; baña geyenak: konso-lau, alkantzau, etc.

Ten edo tan atzizkia ezaíten dautsenean be, orain erabilten doguzan lez barik, beste era batera darabiltz. «Urtaiten (29) emaiten (51) idaraiten (61) igaraiten (135) galeraçaiten (70) arçaitearren, emaitearren (30) Orozko aldean-edo izan ezik, gaur oñelan esaten di-ranik ez dot uste. «Erregüetan deusat (ded) parcaetan



deustegun (18) sinisetan dot (5) (Oraitik bein, 24 garen ingoskian, «sinisten» diño) iuzgaetan (11), aguiñetan dabenean (12) yfaneutan deusut (29) (Au irañ-utsa dala uste dot eta «itaunetan'en ordez dagoala deritxat). Obraetan (24) ulerretan (24) uquetan (44) bedequeetan (49) lagunetan iacuz (55) adietan (55) estaletan (139) bidaletan (105) beguiretan (115) esquetan (144) esquetan (146) echedeten (141) estuten (54).

«Ko» atzizkiaz, bardin: emaiteco (11), galçaiteco (45), içaiteco (67), arçaiteco (81), idaraiteco (96), igaraiteco (96): lagunetaco (67), sinisetaco (76), ezconetaco (112), itaunetaco (47), *euteco* (25).

Gaur bapez edo gitxi erabili oi doguzan aditz batzuk.

«Euki'ren ordez «edugui» darabil beti: itxi'ren ordez geyenez «échi», iassarri (6 t a) jāchi (6) onstu (9, 51, 108) beatu (enterrar) (6), ecusi (16) uquifu (16) idoro (31) urtigui (50) inex-egin (70), inax egin (128) iraxegui (141) irigui (111) verantadu (114) iragaro (153) bedecatu (58).

### Beste itz batzuetan agiri diran aldeak

*Aditz-izenak.* Içaite (28, 35 t. a.) içaitea (17), igarraitea (87, azezeetea (46), parqueetea (147), esquetea (145), opaetea (54), salçaitetan (109) galçaiteric (154), ezauteric (ded) ezaute (76) *eutea* (74): iaioeta (61) sendeeta (66) uquieta (104): iaiaquerea (134) sarçaierea (144).

*Beste izen batzuk:* gau' en ordez egun (4), iabaac (19) iaba (83) erudia (27) abe (columna) (134), arena (tercio) (135), azea-caz (extraño) (84) gaztaena (lactificio) (97), escurre-an (árbol) (82): apaac (104), agui-  
ra eguin (98) aitea (27) amea (41). Erderatikoak:

becatarioc (5) erregutala (7, 42) pelibururic (12) miracuruz (30) apostru (20) Peri-(agaz) (20) afrontu (afrenta) (31) ledaniac (42) estatua (48) conozenzia (58).

Eraskiñak: cheena (ded) andrane (20) iandone, iaundone (20) ateticoacaz (60) ateti (69) exilic (63, 96 f. a.) ixilic (143).

Atzizkiak: beste gauçagafi (ded) pecatuacgatic (29) becatarioc gaiti (5) señaleargaitic (4) ur bedeincatua gaiterren (131) onegaiterren (20).

«Ga» cunpliçaga (96) pagaçaga (77) eguinçaga (114).

«dako» humeendaco (ded) aendaco (18) dauqueenendaco (32) iustuendaco (32) guztiendaco (35) lagunendaco (54) eclesiásticoendaco (87) secularendaco (87) elxeendaco (147) neuretaco (54) guretaco (116).

-rean, -etarean: biotz guztirean (3) *arerioetarean* (4) gacherean (5, 38) ilaen arterean (6, 11) arean (andic) (6) ecerbere ecerean (28) bere graciarean (29) iru *personetarean* (30) peaturean, eriozarean (31) *oneetarean* (39) salutacinorean (40) ussançarean (41) *ocassinoetarean* (50) *orreetarean* (57) eguerdirean aurrera (58) obligaciñorean (58) etorquizunetarean (62) leelengorean (63) (a los principios) *merecimentuetarean* (67) *santuenetarean* (67) *gurasoetarean* (71) *virtuteetarean* (78) *guizonetarean* (79) confessiorean (90) aciendarean (108) *guztietarean* (119) desastradurean (122) infernuerean (123) echerean (124) *deunguetarean* (126) cerurean (126) goxerean (128) bururean (138) idunerean (138) arterean (143) sepulturarean (145) biozerean (151) gorpucerean (152) areanic (88) ona: egotereanic (126, 41).

Porralis'en esakun zâretan be-rean atzizkia sañi didorogu: baña bikoitza-«etarean», bein bez. Añibaño'k bere Esku-Liburuan-«reanic» dakañ iru-lau bidañ.

Beste itz batzuk. Sañitxutan «ez»'en ordez çe idazten dau:

echi çe eguiguzu (4, 38) echi çedaguigula (38) eguin çedaguian (121) yçan çedila (122) echi çedeguiola (123) echi çebegui (124) esan cebeique (125) iocatu cevidi (126) echi cenaguiçu (155).

«Baña», «baya», bein be ez dakařz; orein ordez beti «baea»: «baño»'ren ordez, geyenez «baxen» (37) (Añibařo'k be orixe egin eban bein baño sarriago) nolan (73, 60, etc.) zelan'en ordez: «obeto»'ren ordez «obato» (55, etc.) causa ultra andibaga (102) (ultra), eguntaño (119) veralan (149), erraz (ya) (148); egurtean (entre día), sacramentuez ostean (67) (a más de) baea oneçaz ostean (150). ¿cer bedequetan da ilteaz ostean? (49), gauça guztiez ganean (77)... eta aguindua eguin eçarren, etorri iaten dañuric (98) «y si a causa de no haber cumplido lo mandado»... Gaur onelan ez geunke esango; agindua ez egitearen; egin ez dalako» edo beste onelako esakeraen bat erabiliko geunke ori adierazteko.

Aspaldiko euskal-idazlerik geyenak izenorde alkarbizat «zein» aurrez erabili dabe. Kapanagak be ba darabil; baña oren ordez sañi «ceinda» idazten dau. Esaterako: igaro bidi bigarren partera zeinda da contriciñoa... igaraiten dabela Iesu Christo gure iauneeen bondade fin bacoa, ceinda ofendidu daben (115). Eriak ez bata ez bestea ez ditu beretu.

Beste batzuetan «çeinda» ori askok erabili oi daben «eze»'n ordez agiri da. Esaterako: ...peçatu mortal cheneen gravedadea eta pisua, dala ain andia, ceinda onen pagua eguiteco bear içan çan Christo gure iaun eta iaun goicozen odola... (116).

Azkenez, «ceinda» ori «lez, legeç edo bezela»'ren ordez be ba-darabil. Esaterako: Guiçonac eguin da-

guiela aen magestadeen borondatea, ain vioz osoa-  
gaz çeinda angueruac çeruan (37). Erdelkeria dan ala  
ez ezin esan daiket; baña nai dala nai ez dala eritik  
artua dirudi, gaur egunean be auzez entzufen dogu-ta.

Idoro dodazan aldakuntzarik andienak onexek  
dira; beste idazle batzuen lanak arduraz aztertu ez-  
kero, euskerea, zetan aldatu dan eta aldatzeka zetan  
dagoan, zeatzago ezagutu al izango dogu.

EGUSKITZA.

---